

## Justizia Administrazioa

### BARAKALDOKO LEHEN AUZIALDIKO 2 ZENBAKIKO EPAITEGIA

EDIKTUA, borondatezko porrotari buruzko  
254/04 prozeduraren ondoriozkoa. 12549

## Iragarkiak

### Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

#### HERRIZAINGO SAILA

LEHIAKETA, Herrizaingo Saileko zentroetako  
mezularitza zerbitzua esleitzeko dena (E-282/05 es-  
pediente). 12549

## Agintariak eta Langileria

### Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

#### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3327

8/2005 DEKRETUA, ekainaren 27koa, Lehendakaria-  
rena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administra-  
zioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta  
horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen ditue-  
na.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Lege-  
ko 8.c) artikuluan, honako ahalmen hau egozten zaio  
Lehendakariari: «Jaurlaritza-sailak sortzea edo ezabatzea  
dakarten Dekretuak ematea, herri-xahupideak gehitzea  
ekarri ez dezatenaren baldintzapean, eta bai Sailen agin-  
te-eremuen banaketaren ezein aldaketa ere».

## Administración de Justicia

### JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA N.º 2 DE BARAKALDO

EDICTO dimanante del procedimiento n.º 254/04  
seguido sobre quiebra voluntaria. 12549

## Anuncios

### Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

#### DEPARTAMENTO DE INTERIOR

CONCURSO para el servicio de mensajería para  
centros dependientes del Departamento de Interior  
(E-282/05). 12549

## Autoridades y Personal

### Nombramientos, Situaciones e Incidencias

#### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3327

DECRETO 8/2005, de 27 de junio, del Lehendakari,  
de creación, supresión y modificación de los Depar-  
tamentos de la Administración de la Comunidad Au-  
tónoma del País Vasco y de determinación de fun-  
ciones y áreas de actuación de los mismos.

El artículo 8.c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de  
Gobierno, atribuye al Lehendakari la facultad de «dic-  
tar Decretos que supongan la creación o extinción de  
Departamentos, siempre que no supongan aumento del  
gasto público, así como cualquier modificación en la de-  
nominación o en la distribución de competencias entre  
los mismos».

Arestian Lehendakari jaunak Legebiltzarrean azaldu zuen Gobernu-Programa modu eraginkorrean burutu beharrak bidezko egiten du Administrazio sileen egitura eta sailek izan dituzten eskumenak egokitzea; orain arte izan dituztenak, izan ere, uztailearen 16ko 7/2001 Dekretuan ezarritakoak izan baitira. Jaurlaritzaren eginkizun politiko administratiboak bere horretan jarraitu dezaten nahi da, ezelango etenik gabe. Orain arte Administrazioak izan duen eraketa eta dekretu honen bidez sortzen dena moldatu nahi dira.

Ondorioz, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8.c) artikulua egotzen dizkidan esku-menaren arabera, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.*— Xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura osatzen duten sailak eta beren egiteko eta jardun-arloak finkatzea da dekretu honen xedea.

*2. artikulua.*— Administrazioaren egitura.

Honako sail hauek izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak:

- a) Ogasun eta Herri Administrazio Saila.
- b) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.
- c) Herrizaingo Saila.
- d) Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.
- e) Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
- f) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- g) Osasun Saila.
- h) Kultura Saila.
- i) Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.
- j) Garraio eta Herri Lan Saila.
- k) Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

*3. artikulua.*— Sailen lehentasun hurrenkera.

Sailen lehentasun hurrenkera aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera izango da.

*4. artikulua.*— Jaurlaritzaren Lehendakaritza.

1.— Autonomia Estatutuak, Jaurlaritzaren Legeak eta beste lege-xedapen batzuk Lehendakariari ematen dizkioten egitekoak bete ahal izateko, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako organoen laguntza izango du Lehendakariak. Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura eta egitekoak Dekretu-bidez zehaztuko dira. Jaurlaritzaren Lehendakaritzak honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Jaurlaritzaren bozeramailetza.
- b) Jaurlaritzaren informazio eta komunikazio politika komunikabideekiko.

La necesidad de llevar a cabo con eficacia el Programa de Gobierno expuesto recientemente por el Lehendakari en el Parlamento aconseja realizar una adecuación de la estructura departamental de la Administración y de la asignación competencial entre los Departamentos de la misma establecida mediante el Decreto 7/2001, de 16 de julio, para la pasada legislatura, de manera que se garantice la continuidad de las tareas político-administrativas del Gobierno sin provocar ninguna interrupción en las mismas y, además, se ordene el tránsito de la organización administrativa anterior a la que se aprueba en el presente Decreto.

Por lo expuesto, en virtud de las facultades que me atribuye el artículo 8.c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno,

DISPONGO:

*Artículo 1.*— Finalidad.

Es objeto del presente Decreto la determinación de los Departamentos en los que se estructura la Administración de la Comunidad Autónoma y de las funciones y áreas de actuación de los mismos.

*Artículo 2.*— Estructura de la Administración.

La Administración de la Comunidad Autónoma se organiza en los siguientes Departamentos:

- a) Hacienda y Administración Pública.
- b) Justicia, Empleo y Seguridad Social.
- c) Interior.
- d) Industria, Comercio y Turismo.
- e) Vivienda y Asuntos Sociales.
- f) Educación, Universidades e Investigación.
- g) Sanidad.
- h) Cultura.
- i) Medio ambiente y Ordenación del Territorio.
- j) Transportes y Obras Públicas.
- k) Agricultura, Pesca y Alimentación.

*Artículo 3.*— Orden de precedencia departamental.

El orden de precedencia de los Departamentos se ajustará a lo establecido en el artículo anterior.

*Artículo 4.*— Presidencia del Gobierno.

1.— Para el ejercicio de las funciones que le atribuyen el Estatuto de Autonomía, la Ley de Gobierno y otras disposiciones legales, el Lehendakari estará asistido por los órganos integrados en la Presidencia del Gobierno, cuya estructura y funciones se determinarán mediante Decreto. Se asignan a la Presidencia del Gobierno las siguientes áreas de actuación:

- a) Portavoz del Gobierno.
- b) Política informativa y de comunicación del Gobierno ante los medios de comunicación.

- c) Gizarte eta erakunde harremanak.
- d) Europako Gaiak, Mugaren bi aldeen arteko Lankidetzeta eta Eskualdeen arteko Lankidetzeta, Euskal Gizataldeak eta Euskal Etxeak.
- e) Euskadi kanpoan ordezkatu eta ezagutaraztea.
- f) Aukera berdintasuna genero arloan.
- 2.– Aurreko paragrafoan aipatutako arauaren arabera, Normalizaziorako Kontseilu Politikoa Jaurlaritzaren Lehendakarietzari atxikita dago.
- 3.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen administrazio mailako erakunde autonomoa, Jaurlaritzaren Lehendakarietzari atxikita dago.
- 4.– Jaurlaritzaren Lehendakarietzari Sailtzat joko da aurrekontu ondorioetarako.
5. *artikulua*.– Jaurlaritzaren Lehendakariordetza.
- Lehendakariordeari aitortu dakizkion eskumenak direnak direla, ondoren zehazten diren egiteko eta jardun-arloak dagozkio Jaurlaritzaren Lehendakariordetzari:
- a) Jaurlaritzaren Idazkaritza.
- b) Legebiltzarrarekiko, Arartekoarekiko eta beste instituzioerekiko harremanak eta komunikazioak.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioen arteko lankidetzeta, koordinazioa, plangintza bateratua eta artikulazioa bultzatzea eta garatzea.
- d) Politika publikoen definizio, koordinazio eta exekuzioan euskal gobernantza publikoa diseinatu eta aplikatzea.
- e) Autonomiaren garapenerako politika eta, xede horretarako, sailen jarduerak koordinatzea.
- f) Autonomia Estatutuaren defentsa juridikoa.
- g) Legezketasunaren barne kontroleko eta aholkularitza juridiko orokorreko egitekoak gauzatzea.
- h) Eusko Jaurlaritza eta bere organoak auzietan ordezkatu eta defendatzea.
- i) Administrazioa modernizatzeko prozesua koordinatu, zuzendu eta sustatu, eta bai administrazio eta gobernu elektronikoa ere.
- j) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
- k) Euskal Herriko Zuzenbide Zibil Foral eta berezi kontserbatu, aldatu eta garatzea.
- l) Toki Administrazioaren arloan legeek eta araudiek Jaurlaritzari esleitzen dizkieten egitekoak burutzea.
- m) Euskal herri-administrazioen antolaketaren eta prozeduraren erregimena.
- 2.– Euskadiko Aholku Batzorde juridikoa Jaurlaritzaren Lehendakariordetzari atxikitzen zaio.

- c) Relaciones sociales e institucionales.
- d) Política del Gobierno en materia de Asuntos Europeos, Cooperación Transfronteriza e Interregional y Colectividades y Centros Vascos.
- e) Política de representación y proyección de Euskadi en el exterior.
- f) Política de igualdad de oportunidades en materia de género.
- 2.– Se adscribe a la Presidencia del Gobierno, en los términos que disponga la norma referida en el párrafo anterior, el Consejo Político para la Normalización.
- 3.– Está adscrito a la Presidencia del Gobierno el organismo autónomo administrativo Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.
- 4.– La Presidencia del Gobierno tendrá la consideración de Departamento a efectos presupuestarios.
- Artículo 5.*– Vicepresidencia del Gobierno.
- 1.– Sin perjuicio de las competencias que se asignen a su titular, corresponden a la Vicepresidencia del Gobierno las siguientes funciones y áreas de actuación:
- a) La Secretaría del Gobierno.
- b) Las relaciones y comunicaciones con el Parlamento y el Ararteko e interinstitucionales.
- c) Impulso y desarrollo de las relaciones de cooperación, coordinación, planificación conjunta y articulación institucional del País Vasco.
- d) El diseño y la aplicación de la Gobernanza Pública Vasca en la definición, coordinación y ejecución de las políticas públicas.
- e) La política de desarrollo autonómico y la coordinación, a tal efecto, de las actuaciones de los Departamentos.
- f) La defensa jurídica del Estatuto de Autonomía.
- g) El ejercicio de las funciones de control interno de legalidad y asesoría jurídica general.
- h) La representación y defensa en juicio del Gobierno Vasco y sus órganos.
- i) El impulso, dirección y coordinación del proceso de modernización y reforma de la Administración, así como de la Administración y gobierno electrónicos.
- j) El Boletín Oficial del País Vasco.
- k) Conservación, modificación y desarrollo del Derecho Civil Foral y Especial del País Vasco.
- l) Ejercer las funciones que las Leyes y los reglamentos atribuyen al Gobierno en materia de Administración Local.
- m) Régimen de la organización y procedimiento de las Administraciones Públicas Vascas.
- 2.– Se adscribe a la Vicepresidencia del Gobierno la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

**6. artikulua.**– Egitekoak eta jardun-arloak banatzea.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8. eta 16. artikuluetan Lehendakariari eta Jaurlaritzari egozten zaizkien eskumenez gain eta lehendakariordeari gaineratzen zaizkion eskumenez gain, 2. artikuluan aipatzen diren sailek, hurrengo artikuluetan zehazten diren egitekoak burutuko dituzte euren titularren ardurapean eta dagozkien jardun-arloetan.

**7. artikulua.**– Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

1.– Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Ogasun eta Herri Administrazio Sailari:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak zuzendu, landu, kudeaketa orokorra egin, eta bai jarraipena eta arta eramatea ere. Horietaz gain, aurrekontuei buruzko programazioa.

b) Barneko ekonomi kontrola, kontabilitatea eta erantzukizun kontableak.

c) Finantza politika eta finantza erakundeekiko harremanak.

d) Diruzaintza, zorrak egitea eta bermeak ematea.

e) Aseguruen bitartekaritza-jarduera baimentzea eta kontrolatzea.

f) Gizarte aurreikuspenarako erakundeak, alor honetan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak dituen eskumenekin batera.

g) Ondarea eta kontratazioa.

h) Ekonomi Ituna, Estatuarentzako kupoak eta lurralde historikoen ekarpenak.

i) Eskualdaketaren gai diren eskumen eta zerbitzuen balorazioa; eta Estatuarekiko finantza-fluxuak finantzea, Gizarte Segurantzaren finantzaketari dagokionez.

j) Zergen administrazioa eta erreklamazio ekonomiko administratiboak.

k) Ekonomiaren plangintza.

l) Herrialdeetako politika.

m) Azterlan eta metodo ekonomikoak. Ekonomia-ko iuntura eta aurreikuspena.

n) Lehiaren defentsa.

o) Estatistika.

p) Funtzio publikoa, administrazio antolamendua eta langileen araubidea, hots, juridikoa eta ordainketari buruzkoa.

q) Hainbat sailetarako diren zerbitzuak eta jardura editoriala.

r) Informazio sistemak eta telekomunikazio korporatiboak.

**Artículo 6.**– Distribución de funciones y áreas de actuación.

Sin perjuicio de las competencias que atribuyen al Lehendakari y al Gobierno los artículos 8 y 16 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y las que se asignen al Vicepresidente, los Departamentos citados en el artículo 2 ejercerán, bajo la dirección de sus titulares y en sus respectivas áreas de actuación, las funciones que se determinan en los artículos siguientes.

**Artículo 7.**– Departamento de Hacienda y Administración Pública.

1.– Al Departamento de Hacienda y Administración Pública le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Dirección, elaboración, gestión general, seguimiento y control de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, así como la programación presupuestaria relativa a los mismos.

b) Control económico interno, contabilidad y responsabilidades contables.

c) Política financiera y relaciones con las entidades financieras.

d) Tesorería, endeudamiento y prestación de garantías.

e) Autorización y control de la actividad de mediación de seguros.

f) Entidades de previsión social, sin perjuicio de las competencias del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

g) Patrimonio y contratación.

h) Concierto Económico, cupos al Estado y aportaciones de los Territorios Históricos.

i) Valoración de competencias y/o servicios objeto de transferencia, así como determinación de los flujos financieros con el Estado en relación a la financiación de la Seguridad Social.

j) Administración tributaria y reclamaciones económico-administrativas.

k) Planificación económica.

l) Política regional.

m) Estudios y métodos económicos. Coyuntura y previsión económica.

n) Defensa de la competencia.

o) Estadística.

p) Función pública, organización administrativa y régimen jurídico y retributivo del personal.

q) Servicios multidepartamentales y actividad editorial.

r) Sistemas de información y telecomunicaciones corporativas.

s) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

t) Legeek eta arautegiek eman diezazkieten gainontzeko ahalmenak.

2.- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (HAEE) eta Euskal Estatistika Erakundea (EEE) administrazio mailako erakunde autonomoak eta Itelazpi, S.A. eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, S.A. (EJIE) baltzu publikoak sail honi atxikitzen zaizkio.

**8. artikulua.**— Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

1.- Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari:

- a) Aginte Judizialarekiko harremanak zaintzea.
- b) Justizi Administrazioaren jardunerako baliabi-deak jartzea.
- c) Zigor establezimenduak eta, bereziki, horien antolaera, jarduera eta zigorrei buruzko legeak betetzea, Zigor Administrazioako organo nagusiei legeek ematen dizkieten eskumenak bereganatuz.
- d) Notarioak eta jabego erregistratzaileak izendatzea.
- e) Elkarte, fundazio eta elkargo profesionalek buruzko erregimen orokorra, sailek, beren eremu barruan, horiekiko izan ditzaten harremanen kaltetan gabe.
- f) Giza Eskubideen sustapena.
- g) Euskararen Erabilpena Arauzkutzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarrei ematen dizkien eskubideak erabili ahal izatea bermatzea Justizi Administrazioan.
- h) Lan arloari buruzko legeek lan harremanei buruz ezartzen dutena burutzea.
- i) Enpleguaren eta lanpostuari egokitzearen aldeko politika.
- j) Gizarte ekonomia: kooperatibak eta akziokako lan baltzuak.
- k) Gizarte bazterkeriaren aurkako borroka.
- l) Familia babestea (familiako bizitza eta lana elkarbidatzea).
- m) Gizarte segurantzaren zerbitzuen zuzendaritza, antolaketa eta administrazioa egitea, horren araubide ekonomikoa kudeatzea eta aurreikuspen soziala.
- n) Laneko arriskuei aurre hartzea.

s) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos al Departamento.

t) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.- Están adscritos a este Departamento los organismos autónomos administrativos Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de la Administración Pública (HAEE / IVAP) y Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (EEE / IVE) y las sociedades públicas Itelazpi, S.A. y Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte, A.B. / Sociedad Informática del Gobierno Vasco, S.A. (EJIE).

**Artículo 8.**— Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

1.- Al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Atender las relaciones con el Poder Judicial.
- b) Provisión de medios para el funcionamiento de la Administración de Justicia.
- c) Establecimientos penitenciarios, en especial su organización, funcionamiento y ejecución de la legislación penitenciaria, asumiendo el ejercicio de las facultades que ésta atribuya a los órganos centrales de la Administración penitenciaria.
- d) Nombramiento de Notarios y Registradores de la Propiedad.
- e) Régimen general de Asociaciones, Fundaciones y Colegios Profesionales, sin perjuicio de las relaciones que, respecto a éstos, mantengan los Departamentos en su ámbito sectorial.
- f) Promoción de los Derechos Humanos.
- g) Garantizar, en el ámbito de la Administración de Justicia, el ejercicio de los derechos reconocidos a los ciudadanos por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera.
- h) Ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales.
- i) Política de empleo y de adaptación al puesto de trabajo.
- j) Economía social: cooperativas y sociedades anónimas laborales.
- k) Lucha contra la exclusión social.
- l) Protección de la familia (conciliación de la vida laboral y familiar).
- m) Dirección, organización y administración de los servicios de la Seguridad Social y gestión de su régimen económico, así como previsión social.
- n) Prevención de riesgos laborales.

o) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen duten araberaren arabera.

p) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.– Sail honi atxikita geldituko dira: Lanerako Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (OSALAN) administrazio mailako erakunde autonomoa eta Trebaketa eta Enplegua Sustatzeko Akziokako Baltzu Publikoa (EGAILAN, S.A.).

**9. artikulua.**– Herrizaingo Saila.

1.– Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Herrizaingo Sailari:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Ertzaintza.

b) Hauteskunde administrazioa.

c) Herri babesa.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko errepideetatiko gurpilezko trafikoko polizia.

e) Jokoa, posturak eta ikuskizunak.

f) Segurtasun arloko transmisioak eta komunikazioak.

g) Poliziaren ibilgailuak.

h) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen duten araberaren arabera.

i) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.– Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomo administratiboa sail honi atxikitzen zaio.

**10. artikulua.**– Industria, Merkataritza eta Turismo Saila.

1.– Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari:

a) Industriari buruzko politika.

b) Teknologi berrikuntza.

c) Euskal gizartean, ezagutzaren eta informazioaren aroko gizartea garatu eta sustatzea, beti ere administrazio eta gobernu elektronikoaren arloko jarduerak kalte gabe.

d) Meategiak.

e) Energia.

f) Artesautza sustatzea eta indartzea.

g) Merkataritza.

h) Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkondeak.

i) Prezioen politika.

o) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

p) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los Reglamentos.

2.– Están adscritos a este Departamento el organismo autónomo administrativo Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales – OSALAN y la sociedad pública Sociedad Anónima Pública para la promoción de la Formación y el Empleo - EGAILAN, S.A.

**Artículo 9.**– Departamento de Interior.

1.– Al Departamento de Interior le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Policía de la Comunidad Autónoma.

b) Administración electoral.

c) Protección civil.

d) Policía de tráfico rodado por las vías de comunicación de la Comunidad Autónoma.

e) Juego, apuestas y espectáculos.

f) Transmisiones y comunicaciones en materia de seguridad.

g) Parque móvil policial.

h) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos al Departamento.

i) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.– Está adscrito a este Departamento el organismo autónomo administrativo Academia de la Policía del País Vasco.

**Artículo 10.**– Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

1.– Al Departamento de Industria, Comercio y Turismo le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Política industrial.

b) Innovación tecnológica.

c) Promoción y desarrollo de la Sociedad de la Información y del Conocimiento en la sociedad vasca, sin perjuicio de las actuaciones en materia de Administración y gobierno electrónicos.

d) Minas.

e) Energía.

f) Fomento y promoción de la artesanía.

g) Comercio.

h) Cámaras de Comercio, Industria y Navegación.

i) Política de Precios.

j) Kontsumoa.

k) Turismoa.

l) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen duten araberaren arabera.

m) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2. Sail honi atxikitako erakunde eta baltzuak: Energiaren Euskal Erakundea (EEE) Zuzenbide Pribatupeko ente publikoa eta Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, S.A. (ISEB).

**11. artikulua.**– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

1.– Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari:

a) Lurra eta hirigintza.

b) Etxebizitza.

c) Arkitektura, eraikuntza, iraunarazpena eta kalitatea eraikuntzan.

d) Irisgarritasunaren sustapena.

e) Garapenerako lankidetzak.

f) Boluntariotza.

g) Gizarte Ongizatea eta gizarte zerbitzuak.

h) Familia-bitartekotza.

i) Haurtzaroa.

j) Afektu- eta sexu-askatasuna errazteko bideak sustatzea.

k) Inmigrazioa.

l) Drogamenpekotasunak.

n) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen duten araberaren arabera.

o) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.– Sail honi atxikita geldituko da Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (V.I.S.E.S.A.) baltzu publikoa.

**12. artikulua.**– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari:

a) Autonomia Estatutuan ezartzen diren eskumenak, bai erregimen orokorpekoak eta bai erregimen berezipekoak ere, etapak eta mailak barne sartuz; eta goi mai-

j) Consumo.

k) Turismo.

l) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

m) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.– Están adscritos a este Departamento el ente público de derecho privado Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía (EEE/EVE), y la sociedad pública Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua / Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (ISEB/SPRI).

**Artículo 11.**– Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

1.– Al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Suelo y urbanismo.

b) Vivienda.

c) Arquitectura, edificación, sostenibilidad y calidad en la construcción.

d) Promoción de la accesibilidad.

e) Cooperación al Desarrollo.

f) Voluntariado.

g) Bienestar Social y Servicios Sociales.

h) Mediación familiar.

i) Infancia.

j) Promoción de las condiciones que faciliten la libertad afectivo-sexual.

k) Inmigración.

l) Drogodependencias.

n) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

o) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.– Está adscrita a este Departamento la sociedad pública Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (V.I.S.E.S.A.).

**Artículo 12.**– Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

1.– Al Departamento de Educación, Universidades e Investigación le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Las facultades que se derivan del Estatuto de Autonomía en relación a las enseñanzas tanto de régimen general como especial con inclusión de sus diversas eta-

lako hezkuntza eta bai bizitzan zehar koalifikazioak eskuratu edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerak ere.

b) Zientzia alorreko politika; teoria eta aplikazio mailako ikerketak sustatzea eta koordinatzea.

c) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

d) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.– Sail honi atxikita geldituko da Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Zuzenbide Pribatupeko ente publikoa.

### 13. artikulua.– Osasun Saila.

1.– Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkie Osasun Sailari:

a) Sanitatearen plangintza eta antolamendua.

b) Osasun publikoa eta elikadura-higienea.

c) Zainketa epidemiologikoa.

d) Farmazien eraketa.

e) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

f) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.– Osakidetza Zuzenbide Pribatupeko ente publikoa sail honi atxikita egongo da.

### 14. artikulua.– Kultura Saila.

1.– Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkie Kultura Sailari:

a) Kirolak.

b) Gazteria eta gizarte garapena.

c) Historia- eta arte-ondarearen kudeaketa eta zainketa; museo, liburutegi eta artxibategiak.

d) Hizkuntza politika.

e) Euskararen sustapena.

f) Arte eta kultura mailako jardunak eta horien hedapena.

g) Gizarte komunikabideak; irrati kontzesioak eta frekuentzien esleipena.

h) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

i) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

pas y niveles, y la educación superior, así como a aquellas actividades de aprendizaje que conlleven adquisición o incremento de las cualificaciones a lo largo de toda la vida.

b) Política científica; impulso y coordinación de la investigación teórica y aplicada.

c) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos al Departamento.

d) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.– Está adscrito a este Departamento el ente público de derecho privado Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco.

### Artículo 13.– Departamento de Sanidad.

1.– Al Departamento de Sanidad le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Planificación y ordenación sanitaria.

b) Salud pública e higiene alimentaria.

c) Vigilancia epidemiológica.

d) Ordenación farmacéutica.

e) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

f) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.– Está adscrito a este Departamento el ente público de derecho privado Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.

### Artículo 14.– Departamento de Cultura.

1.– Al Departamento de Cultura le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Deportes.

b) Juventud y desarrollo comunitario.

c) Gestión y protección del Patrimonio Histórico Artístico; museos, bibliotecas y archivos.

d) Política lingüística.

e) Promoción del euskera.

f) Actividades artísticas y culturales y su difusión.

g) Medios de comunicación social; concesión de emisoras y asignación de frecuencias.

h) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

i) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.– Helduen Alfabetatze Berreuskalduntze Erakundea (HABE) eta Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea (SHEE) administrazio mailako erakunde autonomoak, Euskal Irrati Telebista (E.I.T.B.) Zuzenbide Pribatupeko ente publikoa, eta Euskadiko Orkestra, A.B. baltzu publikoa Sail honi atxikita egongo dira.

**15. artikulua.**– Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

1.– Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari:

- a) Lurraldea eta itsasertzak antolatzea.
- b) Ingurumena.
- c) Urak.
- d) Ubideak eta ureztaketak.
- e) Baliabide naturalak antolatzea eta natura zaintzea.

f) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen duten arabera.

g) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.– Ingurugiroaren Kudeaketarako IHOBE, S.A. Ingurugiro Hobekuntza baltzu publikoa sail honi atxikita egongo da.

**16. artikulua.**– Garraio eta Herri Lan Saila.

1.– Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Garraio eta Herri Lan Sailari:

- a) Trenbideak.
- b) Bide sarea.
- c) Lurretikako, itsasotikako, ibaietikako eta kabletikako garraioak.
- d) Heliportuak eta aireportuak.
- e) Portuak eta itsas arazoak.
- f) Metereologia.

g) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen duten arabera.

h) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.– Euskal Trenbide Sarea Zuzenbide Pribatupeko ente publikoa eta Eusko Trenbideak, S.A. (E.T.) eta Euskadiko Kirol Portua, A.B. baltzu publikoak sail honi atxikita egongo dira.

2.– Están adscritos a este Departamento los organismos autónomos administrativos Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea / Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de adultos (HABE) y Soin Hezkuntzako Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Educación Física (SHEE / IVEF), el ente público de derecho privado Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca (EITB), y la sociedad pública Euskadiko Orkestra, A.B. / Orquesta de Euskadi, S.A.

**Artículo 15.**– Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

1.– Al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Ordenación del territorio y del litoral.
- b) Medio Ambiente.
- c) Aguas.
- d) Canales y Regadíos.
- e) Ordenación de recursos naturales y conservación de la naturaleza.

f) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

g) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.– Está adscrita a este Departamento la Sociedad Pública de Gestión Ambiental, IHOBE, S.A. Ingurugiro Hobekuntza-Mejora del Medio Ambiente.

**Artículo 16.**– Departamento de Transportes y Obras Públicas.

1.– Al Departamento de Transportes y Obras Públicas le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Ferrocarriles.
- b) Red viaria.
- c) Transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable.
- d) Helipuertos y aeropuertos.
- e) Puertos y asuntos marítimos.
- f) Meteorología.

g) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

h) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.– Están adscritos a este Departamento el ente público de derecho privado Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea y las sociedades públicas Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A. (E.T./FF.VV.) y Euskadiko Kirol Portua, S.A..

**17. artikulua.**— Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

1.— Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailari:

a) Nekazaritza eta abeltzaintzaren sustapena eta antolamendua.

b) Landa-garapen eta dibersifikazio-ekonomikoaren sustapena.

c) Abeltzaintza eta mendiak.

d) Ehiza eta arrantza kontinentalak.

e) Arrantza.

f) Nekazaritza, arrantza eta elikagaien industriak eta merkaturatzea.

g) Lehenengo baso-eraldakuntzako industriak.

h) Nekazaritzako elikagai politika: nekazaritza—elikagaiak sustatzea, tipifikatzea, horiei jatorri izena ematea eta kalitatea zaintzea.

i) Mahastizaintza eta enologia.

j) Nekazaritza, itsaso eta arrantzarako gaitzea.

k) Nekazaritza eta ozeano ikerketa, dekretu honetako 12.1.b) artikuluan ezartzen denarekin batera.

l) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen duten araberak.

m) Legeek eta arautegiek eman diezazkieten gainontzeko ahalmenak.

2.— Sail honi atxikitako baltzu publikoak: NEIKER Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B. eta Mendikoi-Nekazaritza Garapenerako Institutua, A.B.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lehenengoa.**— Orain arte Nekazaritza eta Arrantza Sailaren barruan egon diren Sailburuordetza, Zuzendaritza eta administrazio-unitateek osatuko dute, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saila.

**Bigarrena.**— Orain arte Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren barruan egon diren Sailburuordetza, Zuzendaritza eta administrazio-unitateek osatuko dute, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

**Hirugarrena.**— Ezagutza eta informazioaren aroko gizartea garatu eta sustatzearen arloari dagokionez, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak egingo dituen jarduerak honelaxe egin beharko dira: Eusko Jaurlaritzak onartutako planifikazioaren barruan eta Lehendakariordetzak gauzatutako koordinazio berariazkoaren pean.

**Artículo 17.**— Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación.

1.— Al Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Promoción y ordenación agrícola y ganadera.

b) Promoción del desarrollo rural y su diversificación económica.

c) Ganadería y montes.

d) Caza y Pesca Continental.

e) Pesca.

f) Industrias y comercialización agrarias, pesqueras y alimentarias.

g) Industrias de primera transformación forestal.

h) Política agroalimentaria: promoción, tipificación, denominación de origen y control de calidad de productos agroalimentarios.

i) Viticultura y enología.

j) Formación agraria y náutico pesquera.

k) Investigación agraria y oceanográfica, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 12.1.b) del presente Decreto.

l) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritas o dependientes del Departamento.

m) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2.— Están adscritas a este Departamento las sociedades públicas Sociedad Pública Neiker Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.B. / Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario y Mendikoi-Nekazaritza Garapenerako Institutua, A.B.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**— El Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación estará integrado por las Viceconsejerías, Direcciones y unidades administrativas del extinto Departamento de Agricultura y Pesca.

**Segunda.**— El Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio estará integrado por las Viceconsejerías, Direcciones y unidades administrativas del extinto Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.

**Tercera.**— Las actuaciones del Departamento de Industria, Comercio y Turismo en el ámbito de la promoción y desarrollo de la Sociedad de la Información y del Conocimiento se desarrollarán en el marco de la planificación aprobada por el Gobierno Vasco bajo la específica coordinación de la Vicepresidencia.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen uztailaren 16ko 7/2001 Dekretua indarririk gabe geratu da.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu honetako azken xedapenetatik lehenengoan jasotakoa bete dadinerarte eutsi egingo zaie Jaurlaritzaren Lehendakarietzako, Jaurlaritzaren Lehendakariordezako eta Jaurlaritzaren Saitetako egitura eta egitekoak finkatzen dituzten arau organikoak.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.**– 1.– Sailburuek, Jaurlaritzari buruzko Legeko 26.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, lehendakariari aurkeztuko dizkiote euren sailei dagozkien arautegi organikoak buruzko egitasmoak, onarpena eman diezaien. Sailburuei izendatutako jardun-arlo bakoitzarentzat Jaurlaritzaren programan jasotako helburuei eta programa hori argitu duten irizpideei egokitu zaizkie egitasmoak.

2.– Arautegi horiek beteko dituzten eraketa irizpideak: egiturak soildu, egiteko-arloak batu, eduki zabalako egiteko-arloak eraiki, egiturazkoak ez diren staff egiteko-arloak identifikatu eta informazioaren teknologiaz ahalik gehien baliatu.

**Bigarrena.**– Dekretu honetan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren aurrekontu-eragiketak burutuko ditu Ogasun eta Herri Administrazio Sailak.

**Hirugarrena.**– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egun beretik izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko ekainaren 27an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En tanto se lleve a efecto lo previsto en la Disposición Final Primera de este Decreto, conservarán su vigencia las normas orgánicas que determinan la estructura y funciones de la Presidencia del Gobierno, de la Vicepresidencia del Gobierno y de los Departamentos del Gobierno.

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera.**– 1.– Los Consejeros, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 26.2 de la Ley de Gobierno, procederán a presentar al Lehendakari, para su aprobación, los proyectos de reglamentos orgánicos de sus respectivos Departamentos, que se adecuarán a los principios inspiradores y a los objetivos previstos en el programa del Gobierno para cada una de las áreas de actuación asignadas a los mismos.

2.– Dichos reglamentos seguirán los siguientes criterios organizativos: aplanamiento de estructuras, agrupación de áreas funcionales, construcción de áreas funcionales con amplios contenidos, identificación de áreas funcionales staff no estructurales y el máximo aprovechamiento de las tecnologías de la información.

**Segunda.**– El Departamento de Hacienda y Administración Pública realizará las operaciones presupuestarias necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en este Decreto.

**Tercera.**– El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de junio de 2005.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.